

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektuaren arrakasta bermatzeko, gure ikuspegia ez da soilik bioerregaiak ekoiztea; bezeroekiko eta ingurumenarekiko erantzukizun eta kalitatezko harremana sortzea da gure helburu nagusia. Hasieran, badakigu baliabideak mugatuak izango direla, baina horrek ez digu gure ikuspegia murrizten. Aitzitik, baliabideak modu arduratsuan erabiliz, etorkizunean prozesuak hobetzea eta ekoizpena handitzea espero dugu, lokal handiagoak erabiliz, langile gehiago kontratatuz eta ekipamendu osagarriak gehituz. Helburua argia da: algaz sortutako bioerregai jasangarria eta irisgarria eskaini enpresa guztientzat, modu iraunkorrean.

Ekoizpena oinarritzen da instalazio fisiko egokietan. Algak hazteko, fotobioreaktore eta putzu bereziak jarriko ditugu, masa kontrolatua bermatzeko. Biomasa prozesatzeko eta bioerregai likido eta solidoa sortzeko makineria teknologikoki aurreratua erabiliko dugu, laborategi edo planta pilotu batean prozesua kontrolatu eta esperimenduak egiteko aukera izango dugularik. Horrez gain, biltegiatze espazioak eta ur-sistemak izango ditugu produktua gordetzeko eta ura modu eraginkorrean birziklatzeko, ekoizpena beti seguru eta iraunkorra izateko.



Baliabide intelektualak gure abantaila nagusia dira. Gure langileek algen eta bioenergiaren inguruko ezagutza tekniko zabala dute, eta prozesuak eta teknologia propioak garatu ditugu, patenteak eta formulak barne. Halaber, gure marka eta estrategia komertzialak aurretik definituta daude, eta ekoizpena kontrolatzeko software berezia erabiltzen dugu, produkzio-datuak eta kalitatea modu jarraituan aztertzeko.

Proiektuaren zati erabakigarria dira giza baliabideak. Biologoak, bioingeniariak eta ingeniari kimikoak arduratuko dira algak hazteaz eta bioerregaiak ekoizteaz. Ekoizpen eta mantentze teknikariak makineria eta sistemak zainduko dituzte, eta marketin, salmenta eta administrazio langileek bezeroekin harreman zuzena izango dute, eskaerak kudeatuko dituzte eta hornidura prozesuak zainduko dituzte. Langileek motibazioa, lankidetzaz, pazientzia eta ingurumenarekiko ardura izan behar dute, lanean segurtasuna eta efikazia bermatzeko.

Azkenik, baliabide ekonomikoek proiektuaren etorkizuna bermatuko dute. Hasierako kapitala instalazioak eta ekipamenduak erosteko erabiliko da, eta I+G finantzaketa

teknologia berriak garatzeko eta patenteak lortzeko. Era berean, funtsak gordeko dira soldatak eta mantentze-kostuak estaltzeko, eta behar izanez gero, inbertitzaile, diru-laguntza edo kredituen bidez baliabide osagarriak lortuko dira.

Horrela, proiektua ez da soilik errealista; jasagarria eta etorkizunerako prestatua ere izango da, eta gure helburua argia da: algaz sortutako bioerregaiak merkatura modu fidagarrian eta seguruan eskaintzea, energia berdea eskaintzen duten enpresa eta erakunde guztientzat erabilgarria.

Unax Casanova – Lan Harreman eta Giza Baliabideak

Hasteko, Unaxek lan harreman eta giza baliabideetako gradua ikasi nahi du. Nortasunaren aldetik, pertsona lagunkoia da, taldekidea ondo koordinatzen du, eta antolatzaile ona da. Gainera, langileen kudeaketa eta motibazioa ezagutzen ditu, eta horregatik, enpresako barne-ikastaroak, prestakuntza saioak eta talde-lanak antolatzeaz arduratuko da, baita langileen ongizatea eta lan giro ona bermatzeaz ere.

June San Roman – Ekoizpen Teknikoa

June ingeniari kimikoa da, bioerregaien ekoizpenean espezializatua. Algak hazteko fotobioreaktoreak eta biomasa prozesatzeko makineria zaintzeaz arduratzen da. Bere ezagutza teknikoari esker, ekoizpen-prozesua optimizatzea, kalitatea kontrolatzea eta energia sortzeko sistemak koordinatzea izango da bere zeregina, ekoizpena etengabea eta segurua izateko.

Julene Rodriguez – Marketina eta Salmentak

Julenek marketin eta salmentetako espezializazioa du. Pertsona sutsua eta komunikatiboa da, eta bezeroekin harreman zuzenak izatea gustuko du. Algaz sortutako bioerregaiak merkatuan nola aurkeztu, bezero berriak erakartzea eta ekoizpenaren eskaerak kudeatzea izango da bere ardura nagusia, baita enpresa-elkarteekin lankidetzan harremanak sortzea ere.

Malen Larrañaga – I+G eta Teknologia

Malen biologoa eta bioingenieria da, alga-prozesuetan aditua. Proiektuaren ikerketa eta garapena zuzenduko du, patenterako teknologia berriak garatuz eta prozesuak hobetuz. Gainera, laborategian esperimentuak egingo ditu eta ekoizpen prozesuak etengabe optimizatzea eta kalitate estandarrak betetzea bermatuko du.

Irati Diaz– Mantentze eta Logistika

Iratiarekin, proiektuaren mantentze eta logistikako ardura dugu. Alak hazteko sistemak, fotobioreaktoreak eta biltegiak etengabe zaindu eta mantentzea izango da bere zeregina, baita produktuak bezeroengana denbora eta segurtasunez iristea ere. Antolatzaile aparta da, eta arazo teknikoak azkar konpontzen ditu.